

**EUSKO JAURLARITZA**

**LEHENDAKARITZA**

Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea



**GOBIERNO VASCO**

**PRESIDENCIA**

Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica

# **EAEKO HIZKUNTZ GAITASUNA ETA ASMOAK**

**2002ko urria**

# Aurkibidea

<b>SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>EZAUGARRI TEKNIKOAK.....</b>	<b>4</b>
<b>LABURPENA.....</b>	<b>6</b>
<b>1 - HIZKUNTZ GAITASUNA .....</b>	<b>8</b>
• Ahozko gaitasuna gaztelaniaz.....	9
• Ulermenezko, ahozko, idatzizko eta irakurriko gaitasunak, euskaraz .....	10
• Elebidunen hizkuntz gaitasun erlatiboa .....	11
• Hitzunen tipologiak.....	12
<b>2 - HIZKUNTZ GAITASUNAREN DIMENTSIO NAGUSIAK .....</b>	<b>13</b>
<b>3 - HIZKUNTZ GAITASUNAREN BANAKETA SOZIODEMOGRAFIKOA .....</b>	<b>16</b>
• Adinaren arabera .....	17
• Jatorriaren arabera.....	18
• Jatorriaren arabera, adin taldeka .....	19
• Ikasketa mailaren arabera.....	20
• Ikasketa mailaren arabera, adin taldeka.....	21
• Jarduera-egoeraren arabera .....	22
• Jarduera-egoeraren arabera, adin taldeka .....	23
• Erlijiotasunaren arabera .....	24
• Erlijiotasunaren arabera, adin taldeka .....	25

• Prentsa-kontsumoaren arabera.....	26
• Prentsa-kontsumoaren arabera, adin taldeka.....	27
<b>4 - HIZKUNTZ GAITASUNAREN BANAKETA SOZIOPOLITIKOA.....</b>	<b>28</b>
• Politikarekiko interesaren arabera.....	29
• Politikarekiko interesaren arabera, adin taldeka.....	30
• Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera.....	31
• Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera, adin taldeka.....	32
• Ezker/eskuin ardatzaren arabera.....	33
• Ezker/eskuin ardatzaren arabera, adin taldeka.....	34
• Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera.....	35
• Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera, adin taldeka.....	36
• Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera.....	37
• Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera, adin taldeka.....	38
<b>5 - HIZKUNTZ BIZIPENAK ETA ASMOAK.....</b>	<b>39</b>
• Etorkizuneko hizkuntz asmoak.....	40
• Hobetsitako irakas-sistemaren hizkuntz eredua.....	41
• Irakaskuntzaren hizkuntz eskaintzaren egokitasuna.....	42
• Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (I).....	43
• Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (II).....	44
• Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (III).....	45

# Sarrera

Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) hizkuntz egoeraren berri eman nahi duen txosten honen helburu nagusia bikoitza da:

- EAEko biztanlerian euskarak duen lekua ezagutu, euskarazko gaitasuna zenbaterainokoa den aztertuz eta hizkuntza hori dakitenen eta ez dakitenen ezaugarri sozial eta politikoetan sakonduz.
- EAEko hezkuntza sisteman nahiz aisialdian umeez dituzten hizkuntz aukeren gaineko balorazio eta asmoak nolakoak diren jakin.

### Aztergaia

Lan honetan erabilitako datuak *Sociómetro Vasco* izeneko ikerlanetan ([http://www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos/indice_e.htm)) erabilitako galde-sortatik eratorritakoak dira. Zehatz-mehatz esanda, inkesta horiek bi txandatan jaso dira.

Lehendabiziko bilketaldian, elkarrizketatuei ondoko gaiez galdetu zitzaion:

- **Hizkuntz gaitasunaren ezaugarriak:** gaztelaniazko ahozko gaitasuna eta euskarazko ulermenezko, ahozko, idatzizko eta irakurriko gaitasunak neurtu dira, eta baita hizkuntza horien arteko gaitasun erlatiboa ere.
- **Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa:** adin, jatorri, ikasketa-maila, jarduera-egoera, erlijiotasun eta prentsa kontsumoaren arabera.
- **Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa:** politikarekiko interes, alderdi politiko batekiko hurbiltasun, ezker/eskuin ardatz, Espainiako/Euskal Herriko ardatz eta Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera.

Bigarren bilketan, ondoko gai hauek landu ziren:

- **Etorrizuneko hizkuntz asmoa:** EAEko lurralde bakoitzeko biztanleek -norberak bere lurralde propioan- elebitasuna edo erdararen nahiz euskararen elebakartasuna nahiago ote duten.
- **Hobetsitako irakas-sistemaren hizkuntz eredua:** Seme-alaben ikasketetarako “nahi duen/nahiko luketen” hizkuntz eredua.
- **Irakaskuntzaren hizkuntz eskaintzaren egokitasuna:** 18 urte baino gutxiagoko seme-alabarik dutenek, aukerarik izan ote duten seme-alabak nahiago zuten hizkuntz eredura bidaltzeko.
- **Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera:** burutzen duten eskolorduz kanpoko ekintzarako nahiko luketen hizkuntz jarduna, burutzen duten ekintzarako hizkuntz nahia, eta horretarako aukera.

### Ezaugarriak

Emaitzen baliotasuna eta fidagarritasuna bermatuta daude erabilitako laginen egokitasunaren bidez, bai EAEn eta baita lurralde historiko bakoitzean ere. Era berean, eskuragarriak diren beste datu batzuekiko alderaketaren bidez ere konprobatu dira baliotasun eta fidagarritasun horiek: igarotako hauteskunde emaitzekiko nahiz sexu, adin, ikasketa eta lan-egoerak euskal gizartean duten zinezko banaketarekiko ere.

Txostenean biztanleria osoari buruzko emaitzak eskaini ez ezik, hainbat banaketa soziodemografiko eta politikoren arabera ere aurkezten dira; betiere, kontuan hartutako azpimultzoen arteko alde esanguratsurik agertuz gero.

Emaitzen azterketa horretan erabilitako aldagaiak ondoko hauek dira:

- Lurralde Historikoa: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin-taldea: *15-24, 25-34, 35-49, 50-64 eta 65 urte edo gehiagokoak*.

- Udalerrien biztanleriaren tamaina: *txikia (<10.000 biztanle), ertaina (10.000 eta 120.000 biztanle bitartean) eta hiriburuak (Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostia-San Sebastián).*
- Jatorria: *elkarrizketatua etorkina; elkarrizketatua bertakoa, baina gurasoetako bat edo biak etorkinak; eta elkarrizketatua bertakoa, eta guraso biak ere bai.*
- Ikasketa-maila: *oinarrizkoak baino gutxiagokoa, oinarrizkoak, bigarren mailako eta goi-mailakoak.*
- Jarduera –egoera nagusia: *lanean, langabezian, etxeko lanetan, ikasten, jubilatu/ezindua eta beste egoeratan.*
- Erlijioarekiko harremana: *katoliko elizkoia, katoliko ez-elizkoia, beste erlijioetako, jainkoan sinestuna baina ez erlijioetan, indiferentea/agnostikoa eta fedegabekoa/ateoa.*
- Egunkariak irakurtze-maiztasuna: *egunero, astean 2 edo 3 alditan, astean behin, ez eta astean behin ere eta inoiz ez edo ia inoiz ez.*
- Politikarekiko interesa: *interes handia, nolabaiteko interesa, interes handirik ez eta batere interesik ez.*
- Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna: *oso hurbil, nahikoa hurbil, zertxobait hurbil, ez hurbil eta batere hurbil ez.*
- Esker/eskuin ardatza: *ezkerra, erdi-gunea, eskuina eta ez dakite erantzuten edo ez dute erantzun nahi.*
- Espainiako/Euskal Herriko ardatza: *Espainiakoa nagusiki, Espainiakoa zein Euskal Herrikoa, Euskal Herrikoa nagusiki eta ez dakite erantzuten edo ez dute erantzun nahi.*
- Independentziarekiko jarrera: *independentziaren aldekoa, aurkakoa, egoera edo baldintzen arabera erabakiko lukete eta ez dakite erantzuten edo ez dute erantzun nahi.*
- Boto oroitzapena: *EAJ-PNV, EA, PP, EH, PSE-EE, IU-EB, UA eta abstentzioa.*
- Hiztunen Tipologia Bikoitza: *euskaldunak eta erdaldunak.*
- Hiztunen Oinarrizko Tipologia: *euskaldun elebakarra/elebidun hartzaile euskalduna, euskal elebidun funtzionala, elebidun funtzional orekatua, erdal elebidun funtzionala, elebidun hartzaile euskalduna eta erdaldun elebakarra (12. orrian azaltzen dira tipologia honen zehaztasunak).*
- Ikasten ari den 18 urte baino gutxiagoko seme-alabaren adina: *3-7 urte, 8-12 urte eta 13-17 urte.*
- Eskolorduz kanpoko ekintza motak: *kulturala, kirol-ekintza, aisialdikoa eta katekesia.*
- Gehien irakurritako egunkaria: *salgai dauden egunkariak, hain zuzen.*

### Aldagai anitzeko analisisa

Ohiko azterketaz gain, arestian ikusitako aldagai soziopolitikoek marrazten dituzten faktore garrantzitsuenak ezagutzeko asmoz, aldagai anitzeko azterketa faktorialari ere ekin diogu. Ondoren, Ezaugarri Teknikoetan, argitzen dira azterketa horren funtsa eta ñabardura teknikoak.

## Ezaugarri teknikoak

## Informazio bilketa

EAEko hiru lurraldeetan egindako galdesorta itxiaren bidezko elkarrizketak ditugu informazio-iturri. Emaitzak *Sociómetro Vasco* izeneko ikerlanetan erabilitako galdesortatik eratorriak dira, horrelako sei ikerlan ezberdinetan bildutako informazioa abiapuntutzat hartuta.

Zehatz-mehatz esanda, inkesta horiek bi garaiotan jaso dira: 1998ko maiatzetik 1999ko urtarrilera bitartean, eta 1999ko urritik 2000ko martxora bitartean. Bi datu-bilketa horietan jorratu diren gaiak ezberdinak dira, 2. orrian azaldu den bezala.

Lehendabiziko datu-bilketan, 15 urte edo gehiagoko 9.087 inkesta bildu ziren eta, bigarren datu-bilketaldian, 18 urte eta gorako biztanleengandik beste 8.681 inkesta jaso ziren.

Bi landa-lan horietan lagina osatzeko prozedurari dagokionez, elkarrizketatuen aukeraketa horrela bideratu zen: lurralde bakoitzeko biztanleritik prozedura polietapiko eta estratifikatuan erakarrirako laginaren bidez, etxez etxe eta zorizko ibilbideei jarraituta; eta ibilbide horien baitan elkarrizketatuak adin, sexu eta lan egoeraren araberrako kuoten bidez hautatuz.

Laginaren balizko errakuntza teorikoa +/-%1ekoa litzateke EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta  $p=q=0,5$  izanik.

## Aldagai anitzeko analisi faktoriala

Sarreran esan bezala, ohiko ustiapenez gain aldagai anitzeko azterketa faktorialari ere ekin zaio, arestian ikusitako aldagai soziopolitikoek marrazten dituzten faktore garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin nahirik.

Zehatzago esanda, saio horretan erabilitako aldagaiak, ondoko hauek dira: *lurralde historikoa, udalerrien tamaina, sexua, lan egoera, erlijioetasuna, jatorria, egunkariaren irakurketa maiztasuna, gehien irakurritako egunkaria, gehien irakurritako bigarren egunkaria, adin taldeak, ikasketa maila, antzemandako estatusa, politikarekiko interesa, ezker-eskuin ardatza, euskal/espainiar ardatza eta, azkenik, Oinarrizko Elebitasun Tipologia.*

Bi aldagai izan ezik gainontzekoak *aldagai eraginkortzat* hartu ziren azterketa faktorialean; hau da, faktoreak eratzeko erabiliak izan ziren. Salbuespenak hauexek dira: a) *Oinarrizko Elebitasun Tipologia*, aldagai deskribatzaile gisa erabili zen; b) *gehlen irakurritako egunkaria*, zeina informazioa ulerkorragoa izan zedin aldagai neutralizatutzat jo zen.

Horretarako lehenengo bilketaldiko 9.087 inkestatuengandik abiatu zen, SPAD izeneko lanabes estatistiko-informatikoaren bidez *korrespondentzia anitz baldintzatuak* (CORCO) analisia aplikatuz.

Plano faktorial interpretagarria mugatzeko asmoz aukeratu ziren faktoreek bariantza osoaren %7,07 eta %3,69 azaltzen zuten.

## Bibliografia

Irizpide tekniko-metodologikoak finkatzeko erabili diren argitalpenak hauexek dira:

- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (1997) *Euskararen Jarraipena II. Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996*. Argitaratzaileak: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskal Kultur Erakundea.
- HAINBAT EGILE (2000) *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko Gaztetxoak eta Euskara*. Gasteiz, Argitaratzailea: Martínez de Luna.



## Laburpena

## Puntuz puntu

Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) biztanleri ia oso-osoak gaztelaniazko ahozko gaitasun handia duen bitartean, euskaraz ahozko gaitasun maila bertsua dutenak laurden bat pasea baino ez da.

Elebidunen artean, gaztelania euskara baino hobeto dakitenen multzoa gehiengo da; hizkuntza bietan berdin moldatzen direnak elebidunen herena; eta euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen direnak, laurdena.

Adina da hizkuntz gaitasuna hobekien bereizten duen aldagaia: *adineko* jendearen artean elebakartasuna -euskaldun nahiz erdaldun petoena-ohikoena den bitartean, *gazteen* artean elebitasuna nagusitzen da. Nortasun etno-kulturaleko eta demografiako aldagaiak bigarren lekuan agertzen dira hizkuntz gaitasuna adierazteko: norberak bere burua *Espainiako/Euskal Herriko* ardatzarekiko identifikazioa, *udalerrien tamaina* eta *jatorria*.

Adin talde eta sorturiko bi hiztun tipologiaren arabera ezaugarri eta berezitasun aipagarri ugari egon badago ere, oro har, euskaldunek erdaldunekin alderatuta, honako ezaugarri bereizgarri hauek adierazten dituzte:

- Ikuspuntu soziodemografikotik, euskaldunen artean proportzio handiagoan agertzen diren ezaugarriak, ondokoak dira: elkarrizketatuak eta euren gurasoak bertakoagoak; ikasketa maila altuxeagokoak; ikasleen proportzio handixeagoa; erlijiotasunaren ikuspuntutik indiferente/agnostiko edo fedegabeak zertxobait ugariagoak; azkenik, prentsa kontsumo altuagoa.
- Ikuspuntu soziopolitikotik gailentzen diren euskaldunen ezaugarriak, hauek dira: politikarekiko interes maila handiagoa eta alderdi politikoekiko urruntasun zertxobait baxuagoa; euren burua ezkertiarago eta nagusiki Euskal Herrikotzat jo; eta Euskadiko independentziaren aldeko proportzio ugariagoa.

Elebitasuna da EAEko -eta hiru Lurralde Historiko bakoitzeko- biztanleriaren gehiengo zabalak desiratzen duten etorkizuneko hizkuntz egoera. Bigarren aukera euskararen elebakartasunarena da, baina hautu horrek oso arrakasta gutxi lortzen du biztanleriarengan.

Biztanleriak, irakas-sistemako hizkuntz ereduei esleitzen dien garrantziaren arabera, nabarmenki hobesten ditu D eta B ereduak (hurrenkera horretan), bien arteko aldea txikia izanik.

Ikasten ari diren 18 urtetik beherako seme-alaben gurasoek, oro har, seme-alabak gustuko hizkuntza eredura bidaltzeko parada izan dutela aitortzen dute; gogoz kontrako eredura eraman behar izan dituztenak gutxi dira eta ereduaren artean (A, B edo D) antzera daude banatuta.

Euskara da seme-alaben orduz kanpoko ekintzetarako (kultura ekintzetan, kirol-ekintzetan, aisialdiko beste ekintzaren batean eta katekesian) elkarrizketaturiko guraso gehienek nahiko luketen hizkuntza, eta jarduera horiek bi hizkuntzetan burutzea da bigarren lekuan eta neurri apalagoan eskatzen dena. Erdara hutsean ekintza horiek nahiko lituzketenak gutxiengo bada ere, ahaztu ezinezko multzoa da.

Seme-alabek eskolorduz kanpoko ekintzak, gurasoek gustukoa duten hizkuntzatan burutzeko parada izan dutela adierazten dute guraso gehienek. Ekintza horietan jardutean erabilitako hizkuntzarekin ados ez dauden gurasoen kopurua apala da eta horien artean gailentzen dira ekintzak gaztelania hutsean izana salatzen dutenak.

## 1 - Hizkuntz gaitasuna

- Ahozko gaitasuna gaztelaniaz
- Ulermeneko, ahozko, idatzizko eta irakurrizko gaitasunak, euskaraz
- Hizkuntz gaitasun erlatiboa
- Hitztunen tipologiak

## Hizkuntz gaitasuna

### Ahozko gaitasuna gaztelaniaz

#### Zenbateraino dakizu gaztelaniaz hitz egiten?

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			SEXUA		ADIN TALDEAK					UDALERRIEN TAMAINA			JATORRIA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA	15-24	25-34	35-49	50-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	BERTAKOA BERA ETA GURASOAK	BERTAKOABAINA AITA EDOTA AMA EZ	ETORKINA
EZER EZ .....	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
HITZ BATZUK .....	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	1	0	0	1	0	0	0
ZERTXOBAIT .....	1	0	1	2	1	1	1	0	0	2	3	3	1	2	0	0	0
NAHIKOA ONGI .....	10	6	12	8	9	10	8	6	8	12	17	15	13	11	6	13	13
ONGI .....	89	94	87	89	89	88	91	93	92	86	79	81	86	86	94	87	87
GUZTIRA .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskadiko Autonomia Erkidegoko ia biztanle guztiek (%99k) gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna dutela diote, horietako gehienek (%89k) *ongi* eta gainontzekoek (%10ek) *nahikoa ongi* egin dezakete-eta hizkuntza horretan. Beste muturrean, ehun biztanletik batek baino ez dio gaztelaniaz duen ahozko gaitasuna mugatua dela, *zertxobait* bakarrik hitz egin dezakeelako.

Gizarte multzo batzuetan gaztelera *ongi* hitz egiten dutenenen proportzioak biztanleriaren batez bestekoa (%89) baino zertxobait apalagoak dira (%79-86 bitartekoak) eta kasu horietan *zertxobait* eta *hitz batzuk* hitz egiten dutenak apur bat areagotzen dira (%3-4 bitartean), hala nola 64 urtetik gorakoen artean (%4), elkarrizketatuak eta euren gurasoak bertakoak direnen artean (%3) edo udalerritxikietako biztanleengan (%4).

# Hizkuntz gaitasuna

## Ulermeneko, ahozko, idatzizko eta irakurriko gaitasunak, euskaraz

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			SEXUA		ADIN TALDEAK					UDALERRIEN TAMAINA			JATORRIA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZ-KOIA	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA	15-24	25-34	35-49	50-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	BERTAKOIA BERA ETA GURASOAK	BERTAKOIA, AITA EDOTA AMA EZ	ETORKINA
<b>Zenbateraino ulertzen duzu euskaraz?</b>																	
EZER EZ .....	30	51	34	17	29	32	7	21	32	47	51	21	28	37	17	23	62
HITZ BATZUK .....	16	13	19	13	17	15	10	16	20	19	15	11	16	18	10	19	22
ZERTXOBAIT .....	19	20	20	15	19	18	29	24	18	11	8	13	18	22	15	30	11
NAHIKOA ONGI.....	12	9	11	14	12	12	20	15	11	6	6	12	13	11	14	16	3
ONGI .....	23	7	16	41	23	23	35	24	19	17	20	43	25	12	43	12	2
<b>Zenbateraino dakizu euskaraz hitz egiten?</b>																	
EZER EZ .....	37	55	41	24	36	38	11	28	40	55	56	26	36	44	21	30	72
HITZ BATZUK .....	17	14	19	13	18	16	15	18	20	17	14	12	17	19	12	22	18
ZERTXOBAIT .....	17	18	18	16	18	17	30	25	15	8	6	14	16	20	16	29	7
NAHIKOA ONGI.....	7	6	7	9	7	8	12	8	7	4	5	8	8	6	10	8	2
ONGI .....	21	7	15	38	21	21	32	22	17	16	19	40	23	11	41	10	2
<b>Zenbateraino dakizu euskaraz irakurtzen?</b>																	
EZER EZ .....	45	56	49	32	44	46	13	33	50	66	67	32	44	51	27	38	81
HITZ BATZUK .....	10	11	11	9	11	9	8	12	12	9	8	8	10	11	9	13	9
ZERTXOBAIT .....	17	18	18	16	18	16	28	22	15	9	9	16	16	19	18	26	6
NAHIKOA ONGI.....	10	8	10	12	9	11	17	12	8	6	6	12	11	8	13	13	2
ONGI .....	18	7	13	31	18	18	33	21	14	10	10	32	19	10	33	10	1
<b>Zenbateraino dakizu euskaraz idazten?</b>																	
EZER EZ .....	47	57	52	36	47	48	14	36	52	70	70	35	47	53	30	40	84
HITZ BATZUK .....	10	12	10	9	11	10	8	12	13	9	9	9	10	11	10	13	8
ZERTXOBAIT .....	18	18	18	16	18	18	30	22	16	9	9	17	17	19	18	27	6
NAHIKOA ONGI.....	9	7	8	10	8	9	17	10	6	5	5	11	10	7	12	11	1
ONGI .....	16	7	11	28	16	16	32	19	12	8	8	28	17	10	30	10	1
GUZTIRA .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko %35ek euskaraz *nahikoa ongi* edo *ongi* ulertzeko gai direla aitortzen dute. Gutxiago dira hitz egiteko (%28), irakurtzeko (%28) eta idazteko (%25) gaitasun maila hori adierazten dutenak.
- Gaitasun hauek gizarte multzo batzuetan hedatuago daude, besteak beste, Gipuzkoako biztanleengan, 15-24 adin taldeetan, udalerrri txikietan eta, azkenik, elkarriketatutak eta euren familiak bertakoak direnen artean.
- Araban, aldiz, 50 urtetik gorakoengan, hiriburuetakoko biztanlerian eta batez ere etorkinen artean euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasun horiek ez daude horren hedatuak.
- Araban eta Bizkaian ez bezala, Gipuzkoan hitz egiteko gai direnen proportzioa zertxobait altuagoa da (%47) irakurtzeko gaitasuna adierazten dutenena baino (%43).

## Hizkuntz gaitasuna

### Elebidunen hizkuntz gaitasun erlatiboa


#### Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago? \*

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			SEXUA		ADIN TALDEAK					UDALERRIEN TAMAINA			JATORRIA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA	15-24	25-34	35-49	50-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	BERTAKOA BERA ETA GURASOAK	BERTAKOAK, AITA EDOTA AMA EZ	ETORKINA
GAZTELANIAZ ERRAZAGO .....	40	64	44	34	41	39	41	45	46	33	27	25	42	54	33	61	73
BERDIN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ .....	34	26	34	34	33	34	33	34	36	32	32	33	34	33	35	31	23
EUSKARAZ ERRAZAGO .....	25	9	20	31	25	26	25	20	17	34	39	40	23	12	31	6	2
Ed/Ee .....	1	1	2	1	1	1	1	1	1	0	2	2	1	1	1	2	1
GUZTIRA .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

\* SOILIK ELEBIDUNAK HARTU DIRA KONTUAN.

- Elebidunak bakarrik kontuan hartuta -hau da, euskara eta erdara *ongi* edo *nahikoa ongi* hitz egiten dituztenak-, multzorik handienak (%40) *gaztelaniaz errazago* egiten du; *hizkuntza batean zein bestean berdin* moldatzen direnak heren bat dira (%34); eta, azkenik, *euskaraz errazago* egiten dutenak laurden bat (%25).
- Gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten duten elebidunak are gehiago dira Araban (%64), hiriburuetan (%54), haiek edota gurasoak kanpokoak direnen artean (%73 eta %61, hurrenez hurren) eta 25-49 urte bitartekoengan (%45-%46).
- Udalerri txikietan, berriz, joera nagusi hori irauli egiten da: euskaraz errazago egiten dutenen multzoa da handiena (%40) eta hizkuntza bietan berdin egiten dutenena bigarrena (%33); erdaraz erosoago sentitzen direnak laurden bat baino ez dira (%25). 50 urte edo gorako elebidunen artean ere euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenak nagusitzen dira (%34-%39).

#### Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago?



# Hizkuntz gaitasuna

## Hiztunen tipologiak

HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA			HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	
EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA		1	EUSKALDUNAK	28
ELEBIDUNAK	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	7		
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	9		
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	11		
ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA		19	ERDALDUNAK	72
ERDALDUN ELEBAKARRA		53		
GUZTIRA		100	GUZTIRA	100

Hiztunen sailkapen egokirako bi tipologiak osatu dira: Hiztunen Oinarrizko Tipologia eta Hiztunen Tipologia Bikoitza. Hiztunen Tipologia Bikoitzak ohiko bi multzotan banatzen ditu biztanleak: euskaldunak eta erdaldunak.

Hiztunen Oinarrizko Tipologia, bestalde, konparagarria da *Euskararen Jarraipena II* izeneko ikerketan erabilitakoarekin eta, baita, 1993 eta 1999ko *Etorkizuna Aurreikusten* ikerketetakoekin. Hona hemen Hiztunen Oinarrizko Tipologiaren kategorien zedarripena:

- *Euskaldun elebakarrak*: euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai direnak eta erdaraz hitz bakar batzuk edo batere hitz egiteko gauza ez direnak. *Elebidun hartzaile euskaldunak*: euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten jakin eta erdaraz zertxobait hitz egiteko gai direnak.
- *Euskal elebidun funtzionalak*: euskaraz nahiz erdaraz ondo edo nahiko ondo aritzeko gaitasuna izanik, euskaraz errazago moldatzen dira.
- *Elebidun funtzional orekatuak*: erraztasun ona eta berdintsua dute euskaraz zein erdaraz hitz egiteko.
- *Erdal elebidun funtzionalak*: euskaraz nahiz erdaraz ondo edo nahiko ondo aritzeko gaitasuna izanik, erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.
- *Elebidun hartzaile erdaldunak*: euskaraz zertxobait eta erdaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dakitenak. Euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai ez badira, ulertu ondo edo nahiko ondo egiten dute eta, irakurri ere ondo edo nahiko ondo egiten dute.
- *Erdaldun elebakarrak*: erdaraz ondo edo nahiko ondo jarduteko gai direnak eta euskaraz hitz batzuk edo ezer ez dakitenak eta, era berean, euskaraz ulertzeko edota irakurtzeko ez dute maila nahikorik.
- Soilik *euskal elebidun funtzionalak*, *elebidun funtzional orekatuak* eta *erdal elebidun funtzionalak* hartu dira elebiduntzat.

Hiztunen Tipologia Bikoitzean dakusagunez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 15 urte eta hortik gorako biztanleen %28 euskalduna dira eta %72 erdalduna.

Erdaldunen artean euskararekiko gaitasunik eza ez da kasu guztietan berdina, Hiztunen Oinarrizko Tipologian ikus daitekeenez:

- *Erdaldun elebakarrek* osatzen dute erdaldunen arteko multzorik handiena (%53), erdaldun petoena edo ia petoena, hain zuzen; hau da, ez direla euskaraz *zertxobait* hitz egitera iristen eta, era berean, ez dutela euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen edota irakurtzen ere.

- *Elebidun hartzaile erdalduna* da erdaldunen arteko bigarren multzoa (%19): hauek ez badira euskaraz *ongi* edo *nahikoa ongi* hitz egitera iristen ere, *zertxobait* egin dezakete edo, bestela, *ongi* edo *nahikoa ongi* uler edota irakur dezakete.

Bestalde, euskaldunak direnen artean euskara eta gaztelaniaren jakite mailan badaude aldeak Hiztunen Oinarrizko Tipologiaren arabera:

- Multzo nagusia (%11) *erdal elebidun funtzionalena* dugu, hau da, hizkuntza biak *ongi* edo *nahikoa ongi* jakinda ere *gaztelaniaz errazago hitz egiten dute* euskaraz baino.

- Ondoren *elebidun funtzionala orekatuen* multzoa dator (%9): hizkuntza bietan *berdin hitz egiten* dutenena, hain zuzen.

- Hirugarren lekuan *euskal elebidun funtzionalena* dugu (%7), hizkuntza biak *ongi* edo *nahikoa ongi* jakinda ere *euskaraz errazago hitz egiten dute* gaztelaniaz baino.

- Azkenik, *euskaldun elebakarren/Elebidun hartzaile euskaldunen* multzoa dago (%1); hauek euskaraz *ongi* edo *nahikoa ongi* dakite baina *gaztelaniaz*, berri, ez dira gaitasun maila berdinerira iristen.

## **2 - Hizkuntz gaitasunaren dimentsio nagusiak**



## Hizkuntz gaitasunaren dimentsio nagusiak

### ALDAGAI ANITZEKO AZTERKETA:

- Hizkuntz gaitasunaren eta gizarte ezaugarri batzuen arteko kidetasunik edo harremanik ote dagoen ezagutu nahi genuen eta, izatekotan, nolakoa den ere bai.
- Informazio hori ondoko analisietan lagungarri izan zitekeelakoan, hainbat aldagai demolinguistiko eta soziopolitikok osatzen dituzten faktore nagusiak kalkulatu dira aldagai anitzeko azterketa faktorial baten bidez.
- Ondoren faktore horietako bik eraikitako planoan hizkuntz gaitasunak duen kokapena ezagutu ahal izan dugu.

### OINARRIZKO ELEBITASUN TIPOLOGIAREN KOKAPENA OSATURIKO PLANO FAKTORIALEAN (ikus 15. or.):


- **Esker/eskuin ardatza** osatzerakoan adinak du zeresanik handiena eta, neurri apalagoan, aldagai horri estuki loturik doazen lan-egoerak, ikasketa-mailak eta erlijiotasunak ere bai. Ardatz honen arabera, Oinarrizko Elebitasun Tipologiaren *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunak*, gehien bat, eta *erdaldun elebakarrak*, modu xumeagoan, multzo adintsuenekin (50 urtetik gorakoekin) batera agertzen dira; halaber, jubilatua, etxeko lanetan dihardutenak, oinarrizko ikasketak baino gutxiago dutenak eta erlijiotasun handikoak hitzun mota horiei lotuta agertzen dira. Bestalde, *elebidun funtzional orekatuak*, *erdal elebidun funtzionalak* eta *elebidun hartzaile erdaldunak* adin talde gazteenekin (15-34 urtekoekin), ikaslea izatearekin, goimailako eta erdimailako ikasketa dutenekin eta erlijiotasun txikikoekin elkartzen dira.
- *Euskal elebidun funtzionalak* ardatz honen erdi aldean (gutxi gora-behera) agertzen zaizkigu.
- **Goiti-beherako ardatzak**, bestalde, aurreko ardatzeko adin talde bertsuetan agertzen zitzaizkigun *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunak* eta *erdaldun elebakarrak* bereizten ditu. Horren arabera, *erdaldun elebakarrak* ondoko multzoekin daude harremanetan: nagusiki *Espainiakoa* edo *Espainiakoa bezain Euskalerrikoa* sentitzen direnekin, hirietako biztanleekin eta etorkina izatearekin. Ardatz honen beste muturrean, aldiz, *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunen* inguruan agertzen diren ezaugarri nabarmenenak hauexek dira: nagusiki Euskalerrikoa sentitzea, udalerrri txikietako biztanleak eta, azkenik, jaiotzez eta familiaz bertako jatorria dutenak.

### ALDAGAI ANITZEKO AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK:

- Adina da hizkuntz gaitasuna hobekien bereizten duen aldagaia: adineko jendearen artean elebakartasuna -euskaldun nahiz erdaldun petoena- ohikoena den bitartean, gazteen artean elebitasuna nagusitzen da.
- Bigarren lekuan, nortasun etno-kulturaleko eta demografiako aldagaiak agertzen dira: norberak bere buruaz *Espainiako/Euskal Herriko* ardatzarekiko identifikazioa, *udalerrien tamaina* eta *jatorria*.

- Azterketa honen arabera elkarriketatuen adina oso garrantzitsua dela ikusita, ondoren garatzen diren hainbat taula adinaren arabera bereiztuko dira, agerian geldidadin aldagai horrek ezkuta litzakeen beste aldagai batzuen eragina.

# Hizkuntz gaitasunaren dimentsio nagusiak



### **3 - Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa**

- Adinaren arabera
- Jatorriaren arabera
- Jatorriaren arabera, adin taldeka
- Ikasketa maila arabera
- Ikasketa maila arabera, adin taldeka
- Jarduera-egoeraren arabera
- Jarduera-egoeraren arabera, adin taldeka
- Erlijiotasunaren arabera
- Erlijiotasunaren arabera, adin taldeka
- Prentsa kontsumoaren arabera
- Prentsa kontsumoaren arabera, adin taldeka

## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

### Adinaren arabera

		ADIN TALDEAK					GUZTIRA
		15-24	25-34	35-49	50-64	>=65	
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	33	20	21	13	13	100
	ERDALDUNAK	17	19	26	21	17	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA.	11	4	8	23	55	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	34	16	15	17	18	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	33	20	23	12	11	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	34	23	25	11	8	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	36	27	22	9	6	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	10	16	28	26	21	100
GUZTIRA		21	19	25	19	16	100

- Azterturiko EAE-ko biztanleriak adin taldeka duen banaketa kontuan hartuta, hiztun tipologiaren banaketaren ezberdintasunak nolakoak diren azalduko dira ondoren, bi hiztun tipologia motetarako.
- Hiztunen Tipologia Bikoitzaren arabera, *erdaldunen* proportziorik handienak 35-49 urteko adin taldean kokatzen dira (%26). Azpimarra daiteke, bereziki, 50-64 urteko adin taldean *erdaldunek euskaldunekiko* duten alde handia: %21 *erdaldunak* eta %13 *euskaldunak*.
- Euskaldunak* 15-24 urteko adin taldean dute beren proportziorik handiena (%33) eta soilik gazte horiengan dira *euskaldunak* nabarmen gehiago *erdaldunak* baino, ia halako bi izan arte (%33 eta %17, hurrenez hurren). Bestalde, 25-34 urteko adin taldean *euskaldunak* eta *erdaldunak* pare-parean daude (%20 eta %19).
- Hiztunen Oinarrizko Tipologiak adin-tarteka aztertuta badu zer aipatu, izan ere, tipologiaren baitako hizkuntz motak oso modu ezberdinean banatzen dira adinaren arabera:
  - *Euskal elebidun funtzional* eta *elebidun funtzional orekatuak* 15-24 urteetako gazteengan biltzen dira proportziorik handienean, multzo horien heren bat adin tarte horretan kokatuz (%34 eta %33, hurrenez hurren).
  - *Erdal elebidun funtzional* eta *elebidun hartzaile erdaldunek* 15-24 urte bitartean biltzen dituzte bere proportziorik garrantzitsuenak: %34 eta %36, hurrenez hurren.
  - *Euskaldun elebakar/Elebidun hartzaile euskaldun* multzokoak (gogora dezagun biztanleria osoaren %1 baino ez direla) 49 urtetik gorakoan artean agertzen dira gehienbat, %78 adin horretatik gora baitago.
  - *Erdaldun elebakarrak* ere gehienbat 34 urtetik aurrera aurkitzen ditugu: %75.

# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Jatorriaren arabera

		JATORRIA			GUZTIRA
		BERTAKOA		ETORKINA	
		BERA ETA GURASOAK	BERA BAI, GURASO BIAK EZ		
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	77	19	3	100
	ERDALDUNAK	29	35	36	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	98	2	0	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	95	5	0	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	79	18	2	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	63	31	6	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	39	50	10	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	26	29	45	100
GUZTIRA		43	30	26	100

✓ Jaioterriari erreparatuz, elkarriketatu gehienak *bertako gurasoengandik bertan jaiotakoak* dira (%43); *inkestatuak bertakoak baina aita edota ama kanpotarrak* dituztenek ia heren bat osatzen dute (%30) eta, azkenik, hemendik *kanpoan jaiotakoak* laurden bat (%26). Datu horiekiko tipologia mota bakoitzean agertzen diren alboraketa nagusiak aztertuko ditugu ondoren.


✓ Hiztunen Tipologia Bikoitzean *euskaldunek* eta *erdaldunek* ez dituzte biztanleriaren proportzio horiek era berdinean betetzen: *euskaldunen* artean %77 *bertako gurasoengandik bertan jaiotakoak* diren bitartean, *erdaldunen* multzorik handiena *etorkinek* osatzen dute (%36), eta ia tamaina berdineko bigarren multzoa da *bertan jaiotakoak*, *baina familia kanpotarra* dutenena (%35).

✓ Hiztunen Oinarrizko Tipologian ere errepikatzen da Hiztunen Tipologia Bikoitzean aipatu den joera nagusia, eta tipologia horren kategoriak zenbat eta euskaldunagoak izan, orduan eta ugariagoa da *bertako gurasoak* dituztenen bertako elkarriketatuen presentzia.

✓ Ildo horretatik, *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldun* (%98), *euskal elebidun funtzional* (%95), *elebidun funtzional orekatu* (%79) eta, azkenik, *erdal elebidun funtzionalen* (%63) artean *bertako gurasoengandik bertan jaiotakoak* nagusitzen dira.

✓ *Elebidun hartzaile erdaldunen* kasuan, aldiz, aita edota kanpotarra dituztenen bertan jaiotakoak dira gehiengoa (%50) eta, aldiz, *erdaldun elebakarren* artean *etorkinak* (%45).

## Hizkuntza gaitasunaren banaketa jatorriaren arabera



# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa


## Jatorriaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	JATORRIA			GUZTIRA
		BERTAKOA		ETORKINA	
		BERA ETA GURASOAK	BERA BAI, GURASO BIAK EZ		
15-24	EUSKALDUNAK	63	34	3	100
	ERDALDUNAK	26	65	9	100
25-34	EUSKALDUNAK	77	20	3	100
	ERDALDUNAK	26	56	18	100
35-49	EUSKALDUNAK	80	14	6	100
	ERDALDUNAK	33	30	37	100
50-64	EUSKALDUNAK	92	5	3	100
	ERDALDUNAK	30	14	56	100
>=65	EUSKALDUNAK	96	4	0	100
	ERDALDUNAK	31	15	54	100
GUZTIRA		46	12	41	100

Hiztunen Tipologia Bikoitza adin tarteka aztertuta, hainbat joera azpimarragarri aurkitzen da:

- *Euskaldunek* adin talde guztietan eusten diote aipaturiko joera nagusiarri: gehienak *bertako gurasoengandik bertan jaiotakoak* dira. Joera hori, halere, moteltzen da adinean jaitsi ahala: (%96 dira 65 urte edo gehiagokoentzat, eta %63 15-24 urtekoentzat); adin talde gazte horretako *euskaldunen* %34 *bertakoak* dira, *baina ez euren gurasoren bat edo biak*.
- *Erdaldunen* artean ere badago zer aipatu: 49 urtetik gorakoan artean *erdaldun* gehienak *etorkinak* dira (%54-%56 bitartean), baina adin horretatik beherako gehienak (%56 eta %65 bitartean) *bertakoak* bai, *baina ez euren gurasoren bat edo biak*.

## Hizkuntza gaitasunaren banaketa jatorriaren arabera, adin taldeka



## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

### Ikasketa mailaren arabera

		IKASKETA-MAILA				GUZTIRA
		OINARRIZKOAK BAINO GUTXIAGO	OINARRIZKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	13	29	35	23	100
	ERDALDUNAK	14	39	32	15	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	68	26	6	0	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	19	36	30	15	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	9	29	36	25	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	5	25	41	29	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	4	25	48	24	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	18	45	26	12	100
GUZTIRA		14	36	33	17	100

Hiztunen Tipologia Bikoitzean ikus daitekeenez, *erdaldunen* nabarmentzen diren ikasketak *oinarrizkoak* badira ere (%39), *euskaldunen* artean ikasketa ohikoenak beste batzuk dira: *bigarren mailakoak*, hain zuzen ere (%35). *Euskaldunen* proportzio handiago batek burutu ditu *goi mailako* ikasketak (%23) *erdaldunen* artean baino (%15).

Hiztunen Oinarrizko Tipologian, aldiz, badaude *euskaldunen* joera nagusi horietatik aldentzen diren berezitasun azpimarragarriak:

- *Euskaldun elebakarren* artean ugariak (%68) *oinarrizko ikasketarik ez dutenak* dira.


- *Euskal elebidun funtzionalen* artean gehiengoa (%36) *oinarrizko ikasketadunak* badira ere, *bigarren mailako* ikasketak dituztenen proportzioa oso antzekoa da (%30).

*Erdaldun* mota guztiek ere ez dute joera bera adierazten:

- *Elebidun hartzaile erdaldunen* multzorik handienak *bigarren mailako* ikasketak ditu (%48).

- *Erdaldun elebakarren* arteko multzorik handiena (%45) *oinarrizko* ikasketadunak dira.

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa ikasketa mailaren arabera




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Ikasketa mailaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	IKASKETA-MAILA				GUZTIRA
		OINARRIZKOAK BAINO GUTXIAGO	OINARRIZKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	
15-24	EUSKALDUNAK	1	31	56	12	100
	ERDALDUNAK	2	30	59	9	100
25-34	EUSKALDUNAK	3	15	36	47	100
	ERDALDUNAK	3	25	46	27	100
35-49	EUSKALDUNAK	6	25	31	38	100
	ERDALDUNAK	5	41	35	19	100
50-64	EUSKALDUNAK	25	45	16	13	100
	ERDALDUNAK	23	53	13	11	100
>=65	EUSKALDUNAK	54	34	8	4	100
	ERDALDUNAK	41	47	6	6	100
GUZTIRA		14	36	33	17	100

Ikasketa maila eta Hitzunen Tipologia Bikoitza adin taldeka aztertuta, badaude aurreko taulan antzemandako joeretatik aldentzen edo nabarmentzen diren bestelako datuak:

- 15 urtetik 24 urte bitarteko *euskaldun* eta *erdaldunengan bigarren mailako* ikasketak dira nagusi, pareko proportzioan (%56 eta %59, hurrenez hurren).
- 64 urtetik behera *goi mailako* ikasketak dituzten *euskaldunak* proportzio handiagoan agertzen dira adin-talde berdineko *erdaldunak* baino, 25-34 urte bitarteko taldean alde hori 20 puntukoa izatera iritsiz. Halere, *goi mailako* ikasketadunak 25-49 urteko adin taldeetako *euskaldunengan* baino ez dira multzorik ugariak.





# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa


## Jarduera-egoeraren arabera

		JARDUERA-EGOERA					GUZTIRA	
		LANEAN	LANGABEZIAN	ETXEKO LANETAN	IKASTEN	JUBILATU/ EZINDUA...		BESTE EGOERATAN
HIZTUNEN TIPOLOGIA	EUSKALDUNAK	40	6	10	27	15	1	100
BIKOITZA	ERDALDUNAK	39	7	20	12	20	1	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	20	1	16	8	54	1	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	35	5	13	26	20	1	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	42	5	10	29	12	2	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	45	7	8	28	10	1	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	44	9	11	28	7	1	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	38	7	23	6	25	1	100
GUZTIRA		40	7	17	16	19	1	100

✓ Jarduera-egoerari begira, 15 urte eta gorakoen arteko *euskaldunek* eta *erdaldunek* zenbait diferentzia aipagarri adierazten dute Hiztunen Tipologia Bikoitzari erreparatuta:

• *Euskaldun* nahiz *erdaldunengan* multzorik handienak lanean dihardutenena bada ere, *euskaldunen* arteko hurrengo multzo handiena *ikasten* ari direnena da (%27); eta *erdaldunen* artean *etxeke lanetan* eta *jubilatu/ezindunena*, biak, parekatuak (%20).

✓ Hiztunen Oinarrizko Tipologiaren arabera *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunen* gehiengoak, ez beste inork, berriazko egoera baten berri ematen digu: lan-egoerarekiko harremanari dagokionez %54 *jubilatu/ezinduen* artean kokatzea.




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Jarduera-egoeraren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	JARDUERA-EGOERA						GUZTIRA
		LANEAN	LANGABEZIAN	ETXEKO LANETAN	IKASTEN	JUBILATU/EZINDUA...	BESTE EGOERATAN	
15-24	EUSKALDUNAK	16	6	0	77		2	100
	ERDALDUNAK	25	8	1	64	0	2	100
25-34	EUSKALDUNAK	72	11	5	10	0	1	100
	ERDALDUNAK	64	16	12	6	0	1	100
35-49	EUSKALDUNAK	73	6	17		2	2	100
	ERDALDUNAK	61	8	27	1	2	1	100
50-64	EUSKALDUNAK	39	4	32	0	24	1	100
	ERDALDUNAK	32	5	35	0	27	1	100
>=65	EUSKALDUNAK	2	0	12		85	0	100
	ERDALDUNAK	1	0	19		80	0	100
GUZTIRA		40	7	17	16	19	1	100

- Adin tarteka aztertuta zenbait adin multzotan ez da betetzen *euskaldun* eta *erdaldun* ororentzat aipatu den lan-egoerarekiko joera nagusia, hau da, *lanean* jardutearena, eta agertzen diren alde azpimarragarrienak hauek dira:
- 15-24 urte bitarteko adinetan *ikasleak* ugarietak dira *erdaldun* nahiz *euskaldunen* artean, baina azken hauengan *ikasten ari diren* horiek proportzio handiagoan (%77) biltzen dira *erdaldunen* artean baino (%64). Bestalde, adin tarte honetako *erdaldunek euskaldunek* baino proportzio handiagoan dihardute *lanean: erdaldunen %25ek eta euskaldunen %16k* egoera hori adierazten baitute.
  - 25-64 urte bitarteko adin talde guztietan *lanean* dauden *euskaldunen* proportzioak adin-talde bereko *erdaldunena* baino handiagoa da, 35-49 urtekoentzat bi multzo horien arteko alderik handiena lortuz (*euskaldunen %73 eta erdaldunen %61*).
  - Aurreko joeraren truke, 25 urtetik gorako adin-talde guzti-guztietan *etxeke lanetan* dihardutenen proportzioak beti dira handiagoak *erdaldunen* artean, alderik handiena 35-49 adin tartean agertuz (*erdaldunen %27 eta euskaldunen %17*).
  - 15 eta 49 urte bitarteko erdaldunengan *langabezia* zertxobait ugariagoa da adin horietako *euskaldunengan* baino, bereziki 25-34 urtekoengan: *erdaldunen %16 dira langabetuak eta euskaldunen %11*.

## Hizkuntza gaitasunaren banaketa jarduera-egoeraren arabera, adin taldeka




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Erlijiotasunaren arabera

		ERLIJIOAREKIKO HARREMANAK						GUZTIRA
		KATOLIKO ELIZKOIA	KATOLIKO EZ-ELIZKOIA	BESTE ERLIJIOTAKOA	JAINKOAN SINESTUNA, EZ ERLIJIOETAN	INDIFERENTEA, AGNOSTIKOA	FEDEGABEKOAK, ATEOA	
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	34	33	0	5	11	16	100
	ERDALDUNAK	35	43	1	5	8	8	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	78	13	0	2	4	3	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	44	27	1	5	8	15	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	31	35	0	5	12	17	100
	ERDAL ELEBI. FUNTZIONALA	26	38	0	5	13	17	100
	ELEBI. HARTZAILE ERDALDUNA	23	48	1	5	10	13	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	39	41	2	5	6	6	100
GUZTIRA		34	40	1	5	8	10	100

- 15 urte edo gehiagoko biztanleriak erlijioarekiko dituen harremanen ikuspuntutik Hiztunen Tipologia Bikoitza aztertzean, *erdaldunen artean katoliko ez-elizkoiak* dira nagusi (%43) eta bigarren lekuan *katoliko elizkoiak* agertzen dira (%35). *Euskaldunengan*, berriz, eta gutxiengatik bada ere, egoerak zerbait aldatzen du: gehiengoa (%34) *katoliko elizkoiena* da eta *katoliko ez-elizkoiena* bigarren multzoa (%33); *fedegabekoak/ateoak* (%16) eta *indiferente/agnostikoak* (%11), euren apaltasunean, ugariagoak dira *erdaldunen artean baino*.
- Oinarrizko elebitasun tipologian dakusagu, aldiz, *euskaldunen* mota guztien artean adostasunik ez dagoela: *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunak* (%78) eta *euskal elebidun funtzionalak* gehien bat (%44) *katoliko elizkoi*en artean kokatzen dira, eta *elebidun funtzional orekatuak* (%35) eta *erdal elebidun funtzionalak* (%38) *katoliko ez-elizkoi*en artean.
- Bestalde, *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunak* izan ezik, gainontzeko *euskaldunek* (*euskal elebidun funtzional, elebidun funtzional orekatu eta erdal elebidun funtzionalak*) joera zertxobait altuxeagoa adierazten dute (%15etik %17ra bitartekoa) ez *sinestuna* edo *ateoa* izateko, *erdaldunek* adierazten dutenarekiko (%6tik %13ra).




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Erlijiotasunaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	ERLIJIOAREKIKO HARREMANAK						GUZTIRA
		KATOLIKO ELIZKOAIA	KATOLIKO EZ-ELIZKOAIA	BESTE ERLIJIOTAKOIA	JAINKOAN SINESTUNA, EZ ERLIJIOETAN	INDIFERENTEIA, AGNOSTIKOIA	EZ SINESTUNA, ATEOA	
15-24	EUSKALDUNAK	13	41	0	4	15	27	100
	ERDALDUNAK	15	49	2	7	9	17	100
25-34	EUSKALDUNAK	15	43		8	14	19	100
	ERDALDUNAK	15	52	3	6	13	11	100
35-49	EUSKALDUNAK	27	39	0	5	12	16	100
	ERDALDUNAK	25	52	1	5	9	8	100
50-64	EUSKALDUNAK	70	20	0	3	3	5	100
	ERDALDUNAK	53	36	1	4	4	3	100
>=65	EUSKALDUNAK	87	8	1	2	1	1	100
	ERDALDUNAK	71	22	0	2	2	3	100
GUZTIRA		34	40	1	5	8	10	100

Hiztun Tipologia Bikoitza adin-tarteka hartuta, badaude aipatu beharreko ezaugarriak ere:

- 50 urtetik beherakoen artean *katoliko ez-elizkoiak euskaldun* nahiz *erdaldunen* artean ugariena dira (%39tik %52rako portzentajeekin), eta adin horretatik gora, aldiz, *katoliko elizkoiak* dira nagusi (%53tik %87ra bitartean) *erdaldun* nahiz *euskaldunengan* –batez ere azkeneko hauengan–.
- *Katoliko ez-elizkoiak* gehiago dira adin-talde guzti-guztietako *erdaldunengan euskaldunengan* baino, batzuen eta besteen arteko diferentziarik handienak 34 urtetik gorakoen artean aurkituz (13-16 puntu bitartekoak, hain zuzen).
- *Indiferente/agnostiko* eta, bereziki, *ez-sinestun/ateoen* proportzioak 50 urtetik behera areagotzen dira, bereziki *euskaldunengan* (%28tik %42ra bitartean, bi aukera horiek baturik).




## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

### Prensa-kontsumoaren arabera

		EGUNKARIAK IRAKURTZE-MAIZTASUNA					GUZTIRA
		EGUNERO	ASTEAN 2 EDO 3 ALDITAN	ASTEAN BEHIN	EZ ETA ASTEAN BEHIN ERE	INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ	
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	58	21	11	3	7	100
	ERDALDUNAK	46	21	15	5	13	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	48	16	11	7	18	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	57	24	11	3	6	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	61	20	10	3	7	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	57	21	12	3	7	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	50	22	15	5	8	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	45	21	15	5	15	100
GUZTIRA		49	21	14	4	11	100

- Hiztunen Tipologia Bikoitzaren arabera, 15 urtetik gorako biztanleengan egunkariak *egunero irakurtzea* da ohiturarik hedatuena, joera hori *euskaldunen* artean markatuagoa izanik (%58) *erdaldunen* artean baino (%46).
- Bestalde, ondoko portaerak arruntagoak dira *erdaldunen* artean *euskaldunen* artean baino; egunkaria *astean behin* irakurtzea (%15 eta 11, hurrenez hurren), *astean behin baino gutxiagotan* irakurtzea (%5 eta %3) eta *ia inoiz ez* irakurtzea (%13 eta %7).
- Hiztunen Oinarrizko Tipologiari erreparatuz, *euskal elebidun funtzionalen*, *elebidun funtzional orekatuen* eta *erdal elebidun funtzionalen* artean, areagotzen dira egunkaria *egunero* irakurtzen dutenen portzentajeak (%57tik %61ra bitartean).




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziodemografikoa

## Prensa-kontsumoaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EGUNKARIAK IRAKURTZE-MAIZTASUNA					GUZTIRA
		EGUNERO	ASTEAN 2 EDO 3 ALDITAN	ASTEAN BEHIN	EZ ETA ASTEAN BEHIN ERE	INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ	
15-24	EUSKALDUNAK	44	25	16	5	10	100
	ERDALDUNAK	34	25	18	6	17	100
25-34	EUSKALDUNAK	63	23	10	1	3	100
	ERDALDUNAK	49	25	16	5	6	100
35-49	EUSKALDUNAK	72	18	5	2	3	100
	ERDALDUNAK	54	20	15	3	8	100
50-64	EUSKALDUNAK	66	15	11	2	6	100
	ERDALDUNAK	51	19	13	4	14	100
>=65	EUSKALDUNAK	54	18	10	5	15	100
	ERDALDUNAK	35	17	15	7	25	100
GUZTIRA		49	21	14	4	11	100

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa prentsa-kontsumoaren arabera, adin taldeka



Biztanleria osorako aipatu diren joera hauek adin multzo bakoitzean ere errepikatzen dira; hau da: batetik, egunkaria *egunero* irakurtzen dutenak gehiengo dira, eta, bestetik, portaera hori hedatuagoa dago *euskaldunen* artean *erdaldunen* artean baino.

Halere, egunkaria *egunero* irakurtzeko ohitura ez da neurri berdinean adin-talde guztietan agertzen: 25-64 urte bitartean *egunero* irakurtzeko joera %49tik %72ra bitartera hedatzen baldin bada, 15-24 eta 65 urtetik gorakoekin artean %34tik %54ra bitartekoa baino ez da.

## **4 - Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa**

- **Politikarekiko interesaren arabera**
- **Politikarekiko interesaren arabera, adin taldeka**
- **Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera**
- **Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera, adin taldeka**
- **Ezker/Eskuin ardatzaren arabera**
- **Ezker/Eskuin ardatzaren arabera, adin taldeka**
- **Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera**
- **Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera, adin taldeka**
- **Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera**
- **Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera, adin taldeka**


## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoak

### Politikarekiko interesaren arabera

		POLITIKAREKIKO INTERESA				GUZTIRA
		BATERE INTERESIK EZ	INTERES HANDIRIK EZ	NOLABAITEKO INTERESA	INTERES HANDIA	
HIZTUNEN TIPOLOGIA	EUSKALDUNAK	27	25	35	13	100
BIKOITZA	ERDALDUNAK	43	24	27	7	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	58	21	21	1	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALAK	23	26	37	13	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	26	26	35	14	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALAK	28	23	35	14	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	35	24	31	10	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	45	24	26	6	100
GUZTIRA		39	24	29	9	100

- Hiztunen Tipologia Bikoitzeko *erdaldunen* artean *politikaz batere interesik ez dutenak* nagusitzen dira (%43) eta *euskaldunen* artean, berriz, multzorik handiena *nolabaiteko interesa* adierazten dutenena da (%35).
- Erdaldunen* %7 *interes handia* adierazten dute eta euskaldunen artean interes maila bera dutenak ia halako bi dira (%13).
- Hiztunen Oinarrizko Tipologiaren arabera, *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldun* (%58), *erdaldun elebakar* (%45) eta *elebidun hartzaile erdaldunengan* (%35) *batere interesik ez* dutenak dira ugarienak.
- Euskal elebidun funtzionalek* (%37), *elebidun funtzional orekatuek* (%35) eta *erdal elebidun funtzionalek* (%35), ordea, duten proportziorik handiena *nolabaiteko interesa* adierazten dutenena da. Era berean, hiru multzo hauetan *interes handia* adierazten dutenak ugariagoak dira (%13tik %14ra bitartean) beste hiztun motetan baino.

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa politikarekiko interesaren arabera






# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoak

## Politikarekiko interesaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	POLITIKAREKIKO INTERESA					GUZTIRA
		BATERE INTERESIK EZ	INTERES HANDIRIK EZ	NOLABAITEKO INTERESA	INTERES HANDIA	Ed/Ee	
15-24	EUSKALDUNAK	30	23	36	11	1	100
	ERDALDUNAK	47	23	24	6	0	100
25-34	EUSKALDUNAK	19	28	38	15	0	100
	ERDALDUNAK	35	25	31	9	1	100
35-49	EUSKALDUNAK	20	22	39	18	1	100
	ERDALDUNAK	35	26	31	8	0	100
50-64	EUSKALDUNAK	31	26	29	13	1	100
	ERDALDUNAK	43	23	26	6	1	100
>=65	EUSKALDUNAK	41	28	22	9	0	100
	ERDALDUNAK	53	20	20	6	2	100
GUZTIRA		38	24	29	9	1	100

Hiztunen Tipologia Bikoitza adin-multzoka aztertuz gero, adin guztietako *euskaldunak* politikaz interesatua-goak agertzen dira adin berdinetako *erdaldunak* baino, bereziki 50 urtetik beherakoen artean: *euskaldunen* artean *interes handia+nolabaiteko interesa* adierazten dutenen kopuruak %47tik %57ra bitartekoak dira, eta 50 urtetik beherako *erdaldunen* artean interes maila hori %30tik %40ra bitartean hedatzen da.

## Hizkuntza gaitasunaren banaketa politikarekiko interesaren arabera, adin taldeka




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa

## Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera

		ALDERDI POLITIKO BATEKIKO HURBILTASUNA					GUZTIRA
		OSO HURBIL	NAHIKOA HURBIL	ZERTXOBAIT HURBIL	EZ HURBIL	BATERE HURBIL EZ	
HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EUSKALDUNAK	8	17	20	18	37	100
	ERDALDUNAK	3	7	18	17	55	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	2	14	15	18	52	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	10	23	21	19	27	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	9	16	22	16	36	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	6	14	19	18	43	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	3	9	18	16	54	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	3	6	19	17	56	100
GUZTIRA		4	10	18	17	50	100

- Hiztunen Tipologia Bikoitzak argi adierazten du *euskaldunen* nahiz *erdaldunen* artean *alderdi politikoezikiko urruntasuna (batere hurbila ez izatea)* nagusitzen dela. Halere, lehenengo artean distantzia hori sentitzen dutenen proportzioa baxuagoa da (%37) *erdaldunek* adierazten dutena baino (%55).
- Hiztunen Oinarrizko Tipologian ere badaude aipagarriak diren beste ezberdintasun batzuk:
  - *Alderdi politikoezikiko urruntasuna* bi multzotan areagotzen da: *erdaldun elebakar, elebidun hartzaile erdaldun eta euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunen* artean (%56, %54 eta %52, hurrenez hurren).
  - *Euskal elebidun funtzionala, elebidun funtzional orekatua eta erdal elebidun funtzionalen* artean *alderdi politikoezikiko urruntasuna* joera nagusia izan arren, asko baretzen da hurbiltasun handiagoa (oso+nahikoa hurbil) adierazten duten aukeren mesedetan.




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitiko

## Alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	ALDERDI POLITIKO BATEKIKO HURBILTASUNA					GUZTIRA
		OSO HURBIL	NAHIKOA HURBIL	ZERTXOBAIT HURBIL	EZ HURBIL	BATERE HURBIL EZ	
15-24	EUSKALDUNAK	6	17	17	16	43	100
	ERDALDUNAK	1	5	14	16	64	100
25-34	EUSKALDUNAK	7	16	25	19	33	100
	ERDALDUNAK	2	5	19	17	56	100
35-49	EUSKALDUNAK	8	19	22	19	32	100
	ERDALDUNAK	3	7	19	19	52	100
50-64	EUSKALDUNAK	9	16	21	18	36	100
	ERDALDUNAK	4	8	20	15	53	100
>=65	EUSKALDUNAK	10	16	20	16	38	100
	ERDALDUNAK	4	9	16	16	55	100
GUZTIRA		4	10	18	17	49	100

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa alderdi politiko batekiko hurbiltasunaren arabera, adin taldeka



Alderdi politiko batekiko *batere hurbil ez* daudenak adin talde guztietan nagusitzen badira ere, *euskaldunek* adierazten duten *alderdi politiko batekiko hurbiltasuna* (oso hurbil+nahikoa hurbil) *erdaldunena* baino askoz handiagoa da edozein adinetan (%23tik %27ra eta %6tik %13 bitartekoa, hurrenez hurren). Bistan da, beraz, alderdi politikoeekiko hurbiltasun mailak harreman estuagoak dituela hiztun motarekin adin taldearekin baino.


## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa

### Ezker/eskuin ardatzaren arabera

		EZKER/ESKUIN ARDATZA				GUZTIRA
		EZKERRA	ERDI-GUNEA	ESKUINA	Ed/Ee	
HIZTUNEN TIPOLOGIA	EUSKALDUNAK	55	13	6	26	100
BIKOITZA	ERDALDUNAK	42	16	11	31	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	31	17	6	46	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	57	13	6	24	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	57	13	5	25	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	56	12	7	26	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	49	13	8	30	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	39	18	12	31	100
GUZTIRA		46	15	10	29	100

- Euskaldunen* eta *erdaldunen* proportziorik handienek euren burua *ezkerrekotzat* jo arren, hiztun tipologia bikoitzeko bi hiztun mota horien artean badago hainbat diferentzi:
  - Euren burua ezkerriartzat jotzen duten *euskaldunak* ugariagoak dira (%55) iritzi berdineko *erdaldunak* baino (%42).
  - *Erdaldunen* artean, apur bat gehiago dira euren burua ardatz horretan kokatzen ez dutenen proportzioa (%31) *euskaldunen* artean baino (%26).
  - *Erdaldunen* artean eskuinean kokatzen direnak (%11) *euskaldunen* ia halako bi dira (%6).
- Hiztunen Oinarrizko Tipologiaren sei elebitasun motetatik bostek ezkerrean dituzte euren multzorik ugarienak: *euskal elebidun funtzionalek* (%57), *elebidun funtzional orekatuek* (%57), *erdal elebidun funtzionalek* (%56), *elebidun hartzaile erdaldunek* (%49) eta *erdaldun elebakarrek* (%39), hain zuzen ere.
- Hori ez ezik, tipologia honek beste berezitasun batzuek eskaintzen dizkigu:
  - *Euskaldun elebakar/Elebidun hartzaile euskaldunen* gehiengoak (%46) ez du erantzuten edo ez daki bere burua esker/eskuin ardatzean kokatzen.
  - *Erdaldun elebakarrek* aipatutako joera nagusiarri eutsi arren, *ezker/eskuin ardatzean* euren burua kokatzen ez dutenen proportzioa handia da (%31) eta, gainera, *eskuinekoen* artean (%12) gainontzeko hiztun motetakoak baino neurri handiagoan agertzen dira.

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa ezker/eskuin ardatzaren arabera



## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitiko


### Ezker/eskuin ardatzaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	EZKER/ESKUIN ARDATZA				GUZTIRA
		EZKERRA	ERDI-GUNEA	ESKUINA	ED/EE	
15-24	EUSKALDUNAK	54	10	5	31	100
	ERDALDUNAK	38	14	10	38	100
25-34	EUSKALDUNAK	64	10	5	21	100
	ERDALDUNAK	47	11	11	31	100
35-49	EUSKALDUNAK	70	12	3	15	100
	ERDALDUNAK	51	16	9	24	100
50-64	EUSKALDUNAK	48	17	7	27	100
	ERDALDUNAK	39	19	12	29	100
>=65	EUSKALDUNAK	30	22	14	34	100
	ERDALDUNAK	29	21	15	34	100
GUZTIRA		46	15	10	29	100

Adin-tarteka aztertuta ere badago zer aipatu:

- 65 urtetik beherako elkarrizketatuetatik *ezkerrean* kokatzen direnen artean *euskaldunen* proportzioa (%48tik %70ra bitartekoa) beti da handiagoa *erdaldunena* baino (38tik %51ra bitartekoa).
- 15-24 urtetako gazte *erdaldunen* multzorik handienak *ez du erantzuten* (%38) edo *ezkerrean* kokatzen dira (%38).
- 65 urte eta goragokoen *euskaldun* nahiz *erdaldunen* artean, %34k *ez dute erantzuten* edo *ez dakite* beren burua esker/eskuin ardatzean kokatzen.

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa ezker/eskuin ardatzaren arabera, adin taldeka




# Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa

## Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera

		ESPAINIAKO/EUSKAL HERRIKO ARDATZA				GUZTIRA
		ESPAINIAKOA NAGUSIKI	ESPAINIAKOA ZEIN EUSKAL HERRIKOAK	EUSKAL HERRIKOAK NAGUSIKI	Ed/Ee	
HIZTUNEN TIPOLOGIA	EUSKALDUNAK	0	12	84	4	100
BIKOITZA	ERDALDUNAK	16	43	33	8	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	0	2	96	1	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	0	3	96	1	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	0	8	87	4	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	0	20	73	6	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	4	38	51	7	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	20	45	27	9	100
GUZTIRA		11	34	48	7	100

- Hiztunen Tipologia Bikoitzean *euskaldun* gehienek (%84) bere burua *nagusiki euskal herrikotzat* jotzen dute, oso urriak izanik *espainiakoa zein euskal herrikoa* (%12) sentitzen direnak; *nagusiki espainiakoa* bezala identifikatzen direnik ez dago.
- Beste muturrean, *erdaldunek* ez diote joera horri eusten eta euren multzorik handiena *espainiakoa zein euskal herrikoa* (%43) sentitzen direnena da, eta bigarren lekuan (%33) *nagusiki euskal herrikotzat* jotzen dutenak daude. *Erdaldunen* artean badaude euren burua *gehienbat Espainiakotzat* jotzen dutenak, baina, kopuru apala da (%16).
- Hiztunen Oinarritzko Tipologiako *erdaldun elebakarren* artean izan ezik, gainontzeko hiztun-motetan guztietan nagusitzen den sentimendua *gehienbat euskal herrikoa* izatearena da. Joera hori oso nabarmena da *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunen* artean (%96), *euskal elebidun funtzionalengan* (%96), *elebidun funtzional orekatuengan* (%87) eta *erdal elebidun funtzionalengan* (%73). *Elebidun hartzaile erdaldunengan* joera nagusi berbera mantentzen bada ere identifikazio horrek duen pisua baxuagoa da (%51).
- Esan bezala, *erdaldun elebakarrek* joera nagusi hori eteten dute, haien arteko autoidentifikazio nagusia *euskal herrikoa zein espainiakoa* delako (%45) eta, bestetik, *nagusiki espainiarrak* sentitzen direnek nolabaiteko pisua hartzen dutelako (%20).



## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoak


### Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	ESPAINIAKO/EUSKAL HERRIKO ARDATZA				GUZTIRA
		ESPAINIAKO NAGUSIKI	ESPAINIAKO ZEIN EUSKAL HERRIKO	EUSKAL HERRIKO NAGUSIKI	Ed/EE	
15-24	EUSKALDUNAK	1	13	83	3	100
	ERDALDUNAK	7	45	41	7	100
25-34	EUSKALDUNAK	0	11	82	6	100
	ERDALDUNAK	11	42	38	9	100
35-49	EUSKALDUNAK	0	9	84	7	100
	ERDALDUNAK	13	45	32	10	100
50-64	EUSKALDUNAK	0	11	87	2	100
	ERDALDUNAK	21	43	28	8	100
>=65	EUSKALDUNAK	0	12	86	2	100
	ERDALDUNAK	26	40	27	7	100
GUZTIRA		11	34	48	7	100

Hiztunen Oinarrizko Tipologiako adin-tarte guzti-guztietan lehen aipatu dugun *erdaldun* eta *euskaldunen* arteko ezaugarri bereizgarriak berriz aurkitzen ditugu:

- *Euskaldunen* artean euren burua *nagusiki euskal herrikotzat* jotzen dutenak beti nagusitzen dira, eta joera horretan egonkortasun handia adierazten dute adinaren gainera: %83tik %87ra bitartean.
- *Erdaldunen* artean *Espainiakoak zein euskal herrikoak* sentitzen direnak nagusitzen dira adin-talde guztietan, baina adinaren arabera ezberdintasunak ere badaude: 15-24 urtekoen artean, beste adinetan ez bezala, *nagusiki euskal herrikoak* eta *Espainiakoak zein Euskal Herrikoak* bezala autoidentifikatzen direnak kopuru berdintsuetara iristen dira (%41 eta %45, hurrenez hurren)
- Adinean aurrera egin ahala, *nagusiki Espainiakoak* sentitzen diren *erdaldunen* proportzioak gorantz doaz, 15-24 urtekoen artean %7 izatetik 65 urte edo zaharragoen artean %26 izatera.

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa Espainiako/Euskal Herriko ardatzaren arabera, adin taldeka



## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa

### Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera

		INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERA				GUZTIRA
		ALDE	EGOERA/ BALDINTZEN ARABERA	AURKA	Ed/Ee	
HIZTUNEN TIPOLOGIA	EUSKALDUNAK	51	32	7	10	100
BIKOITZA	ERDALDUNAK	16	37	30	16	100
HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZAILE EUSKALDUNA	46	26	6	22	100
	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	64	25	3	8	100
	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	57	28	6	9	100
	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	39	40	11	10	100
	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	24	44	20	11	100
	ERDALDUN ELEBAKARRA	13	35	34	18	100
GUZTIRA		26	36	24	14	100

Elebitasun tipologia bikoitzak *euskaldunen* eta *erdaldunen* arteko funtsezko ezberdintasun bat azaltzen digu:


- *Euskaldunen* gehiengoa (%51) *independentziaren aldekoa* da eta %32k ez dute jarrera finkaturik adierazten *emango liratekeen egoera/baldintzen* arabera erabakiko luketela esanez.
- *Erdaldunen* gehiengoak, aldiz, *emango liratekeen egoera/baldintzen* arabera erabakiko luke (%37) eta %30 *independentziaren aurka* agertzen dira.

Oinarrizko elebitasun tipologia Euskadiren independentziarekiko dagoen joera ezberdinak zehazten ditu: tipologiaen kategoriak zenbat eta euskaldunagoa izan hobeto ikusiko da independentzia:

- *Euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldun, euskal elebidun funtzionala* eta *elebidun funtzionala orekatuen* gehiengoa *independentziaren aldekoa* da (%46, %64 eta %57ko proportzioekin, hurrenez hurren).
- *Erdal elebidun funtzionalengan* oreka nagusitzen da: %39k *independentziaren aldekoa* direla diote, eta %40k *emango liratekeen egoera/baldintzen* arabera erabakiko luketela.
- *Elebidun hartzaile erdaldun* eta *erdaldun elebakarrek emango liratekeen egoera/baldintzen* arabera erabakiko lukete (%44 eta % 35, hurrenez hurren), baina azken hauen artean *aurkako jarrerak* ere pisu handia du (%34).

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa

#### Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera





## Hizkuntz gaitasunaren banaketa soziopolitikoa


### Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera, adin taldeka

ADIN TALDEAK	HIZTUNEN TIPOLOGIA BIKOITZA	INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERA				GUZTIRA
		ALDE	EGOERA/ BALDINTZEN ARABERA	AURKA	ED/EE	
15-24	EUSKALDUNAK	55	32	7	6	100
	ERDALDUNAK	16	45	24	15	100
25-34	EUSKALDUNAK	54	31	7	8	100
	ERDALDUNAK	19	43	26	12	100
35-49	EUSKALDUNAK	52	34	6	8	100
	ERDALDUNAK	17	39	29	14	100
50-64	EUSKALDUNAK	48	32	7	13	100
	ERDALDUNAK	14	32	34	20	100
>=65	EUSKALDUNAK	41	29	12	19	100
	ERDALDUNAK	11	28	39	22	100
GUZTIRA		26	36	24	14	100

Oinarrizko elebitasun tipologia adin-tarteka hartuta, bi dira ezaugarriak azpimarragarrienak:

- Adin-talde guztietako *euskaldunen* gehiengoak *independentziaren alde* agertzen da, eta *euskaldun* horiek zenbat eta gazteagoak izan aipaturiko jarrera hori nabarmenagoa da: 65 urte edo gehiagokoan artean %41 izatetik 15-24 urtekoengan %55ra iristeraino.
- 15-49 urte bitarteko adinean *erdaldunen* gehiengoak (%39tik %45era bitartean) *emango lirakeen egoera/baldintzen* arabera erabakiko luke, baina 50 urtetik gora *independentziaren aurka* agertzen dira gehien bat (%34etik %39ra bitartean).

### Hizkuntza gaitasunaren banaketa Euskadiko independentziarekiko jarreraren arabera, adin taldeka



## **5 - Hizkuntz bizipenak eta asmoak**

- **Etorkizuneko hizkuntz asmoak**
- **Hobetsitako irakas-sistemaren hizkuntz eredua**
- **Irakaskuntzaren hizkuntz eskaintzaren egokitasuna**
- **Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera**

# Hizkuntz bizipenak eta asmoak

## Etorkizuneko hizkuntz asmoak

### Etorkizunean, zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean?

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA						
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKALDUN		EUSKAL	ELEBIDUN	ERDAL	ELEBIDUN	ERDOLDUN
					ELEBAKARRA/	HARTZ. EUSK.					
GAZTELANIAZ BAKARRIK.....	5	10	4	2	0	1	1	2	3	7	
EUSKARAZ BAKARRIK.....	13	6	13	18	49	51	32	17	11	5	
BERDIN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ.....	81	83	82	79	51	48	66	81	85	87	
Ed/EE.....	1	1	1	1	0	0	1	1	1	1	
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

☑ *Elebitasuna* da EAEko biztanleriaren gehiengoak (%81) desiratzen duen etorkizuneko hizkuntz egoera. Euskararen nahiz erdararen elebakartasunaren aldekoak, berriz, kopuru urriak dira: %13 eta %5, hurrenez hurren.

☑ EAEn antzemandako *elebitasunaren* aldeko joera bera hiru lurralde historikoetan ere nagusitzen da; halere, Gipuzkoan *elebitasunaren* aldeko apustua (%79) zertxobait baretzen da *euskararen elebakartasunaren* mesedetan (%18).

☑ Erdara ez dakitenek eta erdaraz zertxobait dakitenek edo erdaraz euskaraz baino txartoago dakiten hiztunek (*euskaldun elebakarrek*, *elebidun hartzaile euskaldunek* eta *euskal elebidun funtzionalek*, hurrenez hurren) kopuru berdintsuetan banatzen dira *euskararen elebakartasun* zein *elebitasunaren* aldekoen artean: %48 eta %51 bitartean. Oso zifra apaletan mantendu arren, *erdararen elebakartasuna* (%7) multzo bakar batek hobesten du *euskararen elebakartasunaren* (%5) aurretik: *erdaldun elebakarra*.

### Etorkizunean, zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean?

	EAE	ADIN TALDEAK					UDALERRIAREN TAMAINA		
		18-24	25-34	35-49	50-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
GAZTELANIAZ BAKARRIK.....	5	5	3	3	5	7	3	4	6
EUSKARAZ BAKARRIK.....	13	17	15	13	12	11	24	14	7
BERDIN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ.....	81	77	81	83	82	81	73	82	85
Ed/EE.....	1	1	1	1	1	1	1	1	1
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

☑ Adin talde guztietan hobesten da *elebitasuna*, bi *elebakartasun* moten aurretik; joera nagusi eta nabarmen horren baitan, adinean jaitsi ahala *euskararen elebakartasunak* zertxobait egiten du gora, 18-24 urteko gazteen artean %17 izan arte.

☑ Udalerri tamaina guztietan nagusitzen den hizkuntz asmoa *elebitasunarena* da; udalerrri txikietan ere joera bera mantendu arren, etorkizunean *soilik euskara* nahiko luketenen proportzio zertxobait handiagoa da (%24), *elebitasunaren* garrantzia zertxobait ahulduz (%73).

### Etorkizunean, zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean?

	EAE	POLITIKAREKIKO INTERESA				BOTO OROITZAPENAK							
		EZER EZ	GUTXI	ZERTXOBAIT	HANDIA	PNV	EA	PP	EH	PSE-EE	IU/EB	UA	ABST.
GAZTELANIAZ BAKARRIK.....	5	6	4	3	3	2	1	11	1	7	2	26	5
EUSKARAZ BAKARRIK.....	13	8	13	18	25	14	18	1	39	2	5	0	14
BERDIN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ.....	81	85	82	78	71	83	80	86	59	90	92	74	81
Ed/EE.....	1	1	1	1	1	1	1	2	1	1	0	0	1
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

☑ Politikarekiko adierazitako interesak badu zerikusirik etorkizuneko hizkuntz asmoetan. Interes maila guztietan *elebitasuna* nagusitu arren, politikarako interes hori areagotu ahala *euskararen elebakartasuna* aldeko joera ere hazten da; horrela, politikarekiko *batere interesik adierazten* ez dutenen %8k hautatzen dute *euskararen elebakartasuna* eta, beste muturrean, *interes handia* dutenen artean %25ek.

☑ *Boto-emaile mota guztietan* eta *abstentzionisten* artean, *elebitasunaren* aldeko jarrera beti da nagusi. Hori argi utzita, hautesleen artean dauden alde azpimarragarrienak hauexek dira: *euskararen elebakartasunaren* aldekoak *EH* edo *Batasuneko* boto-emaileen artean askoz ugariagoak dira (%39) gainontzeko hautesleengan baino eta, beste muturrean, *UA*, *PP* eta *PSE-EE*ko boto-emaileak dira *erdararen elebakartasuna* (%26, %11 eta %7, hurrenez hurren) *euskararen elebakartasunaren* aurretik jartzen duten bakarrak.

# Hizkuntz bizipenak eta asmoak

## Hobetsitako irakas-sistemaren hizkuntz eredua

**Seme-alabarik baduzu edo bazenu, eskolan zein hizkuntz eredutan nahiko zenuke ikastea?**

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKALDUN ELEBAKARRA/ HARTZ. EUSK.	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	ERDALDUN ELEBAKARRA
A EREDUAN .....	10	15	11	5	3	1	1	3	8	14
B EREDUAN .....	40	50	38	37	21	9	14	25	39	53
D EREDUAN .....	46	31	47	56	71	88	82	70	51	28
ATZERRIKO HIZKUN- TZAREN BATEAN .....	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1
Ed/Ee.....	3	3	3	1	3	1	1	1	1	4
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Irakas-sistemako hizkuntz ereduen artean EAEko biztanleriaren gehiengoak (%46k) *D eredia* hobesten du (edo, seme-alabarik balu, hobetsiko luke) bere seme-alabentzat, eta beste %40k *B eredia* hautatzen dute (edo hautatuko lukete). Biztanleriaren %10ek baino ez dute (lukete) nahiago *A eredia*.

Lurraldez lurralde aztertuta, Gipuzkoan eta Bizkaian *D ereduaren* aldeko jarrerak gailentzen dira (%56 eta %47, hurrenez hurren). Araban, aldiz, *B ereduaren* aldeko iritziak nagusitzen dira (%50) *D ereduaren* kaltetan (%31). *A ereduaren* aldeko hautua apala da hiru lurraldeetan, baina batetik bestera badago aldea eredu horrek lortzen duen atxikimendu mailan: %15 Araban, %11 Bizkaian eta %5 Gipuzkoan.

Hiztunen Oinarrizko Tipologiari erreparatuta ere agertzen dira zenbait berezitasun: *erdaldun elebakarrek* izan ezik, gainontzeko hiztun mota guztiak hobesten dute *D eredia* (%51tik %88ra bitartean); hartara, *erdaldun elebakarregan B ereduaren* aldeko jarrera nagusitzen da (%53). Aipagarria da ere *euskaldun elebakar/elebidun hartzaile euskaldunak* (%71) ez direla gainontzeko *euskaldunak* bezain ugariak (%88 eta %82) *D ereduaren* aldeko apustua egiterakoan.

**Seme-alabarik baduzu edo bazenu, eskolan zein hizkuntz eredutan nahiko zenuke ikastea?**

	EAE	ADIN TALDEAK					UDALERRIAREN TAMAINA		
		18-24	25-34	35-49	50-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
A EREDUAN	10	9	6	11	11	10	4	8	14
B EREDUAN .....	40	31	37	37	48	48	32	39	46
D EREDUAN .....	46	56	55	50	38	34	62	50	35
ATZERRIKO HIZKUNTZAREN BATEAN .....	1	1	1	1	1	1	0	1	2
Ed/Ee.....	3	1	1	1	2	7	2	2	3
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Adinean behera egin ahala areagotzen da *D ereduaren* aldeko jarrera: *65 urte edo gehiagokoan* %34k hobesten dute eredu hori eta *18-24 urtekoan* artean %56k; gauzak horrela, *50 urtetik gorakoan* artean *B ereduak* lortzen du arrakastarik handiena (%48).

Udalerrien tamainari erreparatuz, *udalerrri txikiak D ereduari* atxikitzen zaizkion nabarmen (%62) eta *udalerrri ertainak* neurri apalagoan (%50). *Hiriburuak*, berriz, *B ereduaren* alde agertzen dira lehenengo hautuan (%46).

**Seme-alabarik baduzu edo bazenu, eskolan zein hizkuntz eredutan nahiko zenuke ikastea?**

	EAE	IKASKETA MAILA				BOTO OROITZAPENAK							
		<OINA- RRIZKOAK	OINA- RRIZKOAK	ERTAINAK	GOI MAILAKOAK	PNV	EA	PP	EH	PSE-EE	IU/EB	UA	ABST.
A EREDUAN .....	10	11	10	8	9	4	6	22	1	16	5	29	10
B EREDUAN .....	40	50	45	35	34	34	28	59	13	60	47	53	38
D EREDUAN .....	46	32	42	55	52	60	62	13	85	20	45	15	47
ATZERRIKO HIZKUNTZAREN BATEAN .....	1	1	1	1	3	0	0	2	0	1	2	0	1
Ed/Ee.....	3	6	2	2	1	1	4	3	0	3	1	3	3
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Ikasketa mailak badu zeresana hizkuntz ereduen hautuan: *oinarrizko ikasketak* izan edo *horietara iritsi ezean*, gailentzen dena *B eredia* da (%45 eta %50, hurrenez hurren). Aitzitik, *maila ertaineko* edo *goi mailako* ikasketak dituztenek *D ereduaren* alde jotzen dute gehienbat (%55 eta %52, hurrenez hurren).

Boto oroitzenaren ikuspuntutik badaude zenbait joera ezberdin; *EH* edo *Batasunako* boto-emaelek *D eredia* hobesten dute, adostasun maila handia adieraziz (%85), ondoren *EA*-koak (%62) eta *EAJ*-koak datoz (%60), zaletasun hori *abstentzionisten* artean apalagoa izanik (%47). *PSE-EE*, *PP* eta *UA*-ko boto-emaelek, berriz, *B eredia* hobesten dute (%60, %59 eta %53, hurrenez hurren). Erdibidean daude *IU-EB*-ko boto-emaelek, *B ereduaren* alde %47k eta *D ereduaren* alde beste %45ek joz. *A eredia* garrantzi askoz gutxiagoarekin agertzen bada ere, *UA* (%29), *PP* (%22) eta *PSE-EE*-ko (%16) boto-emaeleengan lortzen duen babes azpimarragarria da.

## Hizkuntz bizipenak eta asmoak

### Irakaskuntzaren hizkuntz eskaintzaren egokitasuna

Zure seme-alaba nahi zenukeen eredura bidaltzeko aukera eskaini dizute? *				
	EAE	IKASTEN ARI DEN 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO SEME-ALABEN ADINA		
		3-7 URTE	8-12 URTE	13-17 URTE
Bai .....	86	88	85	85
Ez, A EREDUAN DAGO .....	4	2	4	8
Ez, B EREDUAN DAGO .....	3	3	4	3
Ez, D EREDUAN DAGO .....	5	6	5	3
Ed/Ee .....	1	2	1	2
GUZTIRA.....	100	100	100	100


\* SOILIK IKASTEN ARI DIREN 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO SEME-ALABAK DITUZTENAK HARTU DIRA KONTUAN.

Ikasten ari diren 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten elkarrizketatuen %86k bere seme-alabentzat *nahi zuten hizkuntz eredua* aukeratu izan dute, eta %12k ez. Nahi zuketean aukera betetzerik izan ez dutenak oso modu parekatuan daude banatuta: %4 *A ereduan*, %3 *B ereduan* eta %5 *D ereduan*.

Adin tarteka aztertuta, gustuko hizkuntz eredua hautatzeko aukera bere horretan mantentzen da, aldaketa txiki batekin.

Euren seme-alabentzat gustuko hizkuntz eredurik lortu ez dutenen artean aldaketa txiki bat antzematen da adin-multzoka: 13-17 urteko ikasleen artean zertxobait handiagoa da beste aukerarik ezean *A eredura* joan behar izan dutenen portzentajea (%8) beste adinetan baino (%2, 3-7 urtekoentzat, eta %4, 8-12 urtekoentzat). Beste aukerarik ezean *D eredura* joan direnen artean kontrako joera antzematen da, adinaren arabera: zertxobait gehiago dira 3-7 urtekoen artean (%6) beste adin tartetean baino (%5 eta %3).

## Zure seme-alaba nahi zenukeen eredura bidaltzeko aukera eskaini dizute?



Bai  
 Ez, A ereduan dago  
 Ez, B ereduan dago  
 Ez, D ereduan dago  
 Ed/Ee


## Hizkuntz bizipenak eta asmoak

### Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (I)

Eskolaz kanpoko ekintzaren bat egiten du? *				
	EKINTZA MOTA			
	KULTURALA	KIROL-EKINTZA	ASIALDIKOA	KATEKESIA
BAI .....	%31	%46	%14	%15
Ekintza horiek nagusiki zein hizkuntzatan egitea nahiko zenuke? *				
	KULTURALA	KIROL-EKINTZA	ASIALDIKOA	KATEKESIA
ERDARAZ .....	21	23	14	25
EUSKARAZ ETA ERDARAZ.....	29	33	32	31
EUSKARAZ.....	48	42	53	44
Ed/EE.....	3	2	2	0
EKINTZA EGITEN DUTENAK, GUZTIRA	100	100	100	100
Zure seme-alabak aukerarik izan du ekintza horiek zuk nahi zenukeen hizkuntzatan egiteko? *				
	KULTURALA	KIROL-EKINTZA	ASIALDIKOA	KATEKESIA
BAI .....	76	74	83	77
Ez, GAZTELANIAZ EGITEN DU.....	15	17	8	14
Ez, ERDIZKA EGITEN DU.....	3	4	3	4
Ez, EUSKARAZ EGITEN DU.....	3	3	4	3
Ed/EE.....	3	3	2	2
EKINTZA EGITEN DUTENAK, GUZTIRA	100	100	100	100

\* SOILIK IKASTEN ARI DIREN 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO SEME-ALABAK DITUZTENAK HARTU DIRA KONTUAN.

### Zure seme-alabak aukerarik izan du ekintza horiek zuk nahi zenukeen hizkuntzatan egiteko?



Inkestatuen ikasten ari diren 18 urte baino gutxiagoko seme-alaba batzuek eskolaz kanpoko ordutan ekintzaren bat burutzen dute, eta horretaz galdetuta ondoko zifrak hauek jaso dira: ekintza kulturalak %31k egiten dute, kirol-ekintzak %46k, aisialdiko beste ekintzaren bat %14k eta katekesia %15ek.

*Euskara* da ekintza horiek burutzeko elkarriketatu gehienek nahiko luketen hizkuntza: kultura ekintzetan %48k, kirol-ekintzetan %42k, aisialdiko beste ekintzaren batean %53k eta katekesian %44k. Ondoren, ekintza horiek *bi hizkuntzetan* burutzea da gehien eskatzen dena: kultura ekintzetan %29k, kirol-ekintzetan %33k, aisialdiko beste ekintzaren batean %32k eta katekesian %31k. *Erdara* hutsean ekintza horiek nahiko lituzketenak gutxiengo bada ere, ahaztu ezinezko multzoak dira: kultura ekintzetan %21, kirol-ekintzetan %23, aisialdiko beste ekintzaren batean %14 eta katekesian %25.

Gurasoentzat *gustukoa den hizkuntzan* seme-alabek eskolorduz kanpoko ekintzak burutzeko parada izan dutela adierazten dute guraso gehienek: kultura ekintzetan %76k, kirol-ekintzetan %74k, aisialdiko beste ekintzaren batean %83k eta katekesian %77k. Ekintza horietan jardutean *erabilitako hizkuntzarekin ados* ez dauden gurasoen kopurua apala da, eta horien artean gailentzen dira *gaztelania* hutsean izatea salatzen dutenak: kultura ekintzetan %15, kirol-ekintzetan %17, aisialdiko beste ekintzaren batean %8 eta katekesian %14. Azkenik, ekintza euskaraz eta erdaraz edo euskara hutsez izateagatik gustura ez daudenak oso kopuru txikiak dira: %3 eta %4 bitartean.

## Hizkuntz bizipenak eta asmoak

### Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (II)

	EAE	HIZTUNEN OINARRIZKO TIPOLOGIA					
		EUSKALDUN ELEBAKARRA/ ELEBIDUN HARTZ. EUSK.**	EUSKAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	ELEBIDUN FUNTZIONAL OREKATUA	ERDAL ELEBIDUN FUNTZIONALA	ELEBIDUN HARTZAILE ERDALDUNA	ERDALDUN ELEBAKARRA
<b>Nagusiki zein hizkuntzatan nahiko zure seme-alabak kirola egitea?*</b>							
ERDARAZ.....	23	0	0	1	8	14	33
EUSKARAZ ETA ERDARAZ.....	33	0	8	26	22	33	39
EUSKARAZ.....	42	100	88	71	70	51	26
Ed/EE.....	2	0	5	1	0	1	3
<b>Zure seme-alabak aukerarik izan du kirola zuk nahi zenukeen hizkuntzatan egiteko?*</b>							
BAL.....	74	100	83	80	68	68	75
EZ, ERDARAZ EGITEN DU.....	17	0	8	10	17	21	18
EZ, ERDIZKA EGITEN DU.....	4	0	5	5	8	2	3
EZ, EUSKARAZ EGITEN DU.....	3	0	5	4	3	6	1
Ed/EE.....	3	0	0	1	4	2	3
GUZTIRA.....	100	100**	100	100	100	100	100

\* ESKOLORDUZ KANPOKO EKINTZETATIK KIROLA HARTU DA ELKARRIZKETATUEN SEME-ALABEK GEHIEN EGITEN DUTEN EKINTZA DELAKO.

\*\* MULTZO HONETAN ELKARRIZKETATUEN %0,7 (63 LAGUN) BAINO EZ DAGO ETA, ONDORIOZ, DATUOK EGONGAITZAK IZAN DAITEZKE.

- Erdaldun elebakarrak** izan ezik, Hitzunen Oinarrizko Tipologiako gainontzeko elkarrizketatuek euren seme-alabek kirola *euskaraz* egitea nahiko lukete. Iritzi hori ahultzen doa elkarrizketatuen euskarazko gaitasuna jaisten den heinean *euskaldun elebakarra/elebidun hartzaile euskaldunen %100etik elebidun hartzaile erdaldunen %51*raino.
- Gogora dezagun EAEko biztanleriaren gehiengoak *erdaldun elebakarrek* osatzen dutela (%55). Multzo nagusi horrek gehienbat nahiko luke seme-alabek kirola *hizkuntza bietan* egitea (%39), ondoren datoz kirola *erdaraz* izatea nahiko luketenak (%33) eta azkenik *euskaraz* nahiko luketenak (%26).
- Hitzunen Oinarrizko Tipologiako multzorik euskaldunenak (*euskaldun elebakarra/elebidun hartzaile euskaldun, euskal elebidun funtzionala eta elebidun funtzional orekatuak*) neurri handian asebeteta agertzen dira euren seme-alabek kirol-ekintza burutzerakoan nahi zuten hizkuntzan aritu izanarekin (%80tik gora). Desadostasun apalen artean gailentzen den multzoa *elebidun hartzaile erdaldunena* da, multzo horren %21ek euren desadostasuna azaltzen baitute kirol-ekintza *erdaraz* izatearekin.

## Hizkuntz bizipenak eta asmoak

### Eskolorduz kanpoko ekintzen hizkuntz nahia eta egoera (III)

	EAE	LURRALDE HISTORIKOA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
<b>Nagusiki zein hizkuntzatan nahiko zenuke zure seme-alabak kirola egitea?</b>							
ERDARAZ .....	23	34	29	8	17	17	31
EUSKARAZ ETA ERDARAZ .....	33	31	29	39	30	34	34
EUSKARAZ .....	42	30	40	52	51	47	33
ED/EE .....	2	4	2	1	3	2	3
<b>Zure seme-alabak aukerarik izan du kirola zuk nahi zenukeen hizkuntzetan egiteko?</b>							
BAI.....	74	75	70	78	75	74	74
EZ, GAZTELANIAZ EGITEN DU .....	17	21	22	8	13	17	19
EZ, ERDIZKA EGITEN DU .....	4	1	3	6	4	4	3
EZ, EUSKARAZ EGITEN DU.....	3	0	2	5	4	3	2
ED/EE .....	3	2	3	3	4	2	3
GUZTIRA.....	100	100	100	100	100	100	100

\* ESKOLORDUZ KANPOKO EKINTZETATIK KIROLA HARTU DA ELKARRIZKETATUEN SEME-ALABEK GEHIEN EGITEN DUTEN EKINTZA DELAKO.

Euren seme-alabek kirola *euskaraz* egitea nahiko zuketena da elkarrizketatuen aukerarik aipatuena Bizkaian (%40) eta Gipuzkoan (%52), lurraldeari dagokionez, eta *udalerrri txikietan* (%51) eta *ertainetan* (%47), udalerrriaren tamainari dagokionez. Araban eta hiriburuetan, aldiz, *euskaraz* soilik, *bi hizkuntzetan* edo *erdaraz* soilik nahiko zuketenen proportzioak oso parekatuak daude, kasu guztietan %30etik eta %34ra bitartean.

Seme-alabek kirola egiteko erabili duten hizkuntzarekin adostasun handia dago lurraldeetan nahiz udalerrri tamaina guztietan. *Erdaraz* izanagatik ezadostasuna txikia bada ere, zertxobait areagotzen da Araban (%21) eta Bizkaian (%22); *udalerrri txikietan*, aldiz, desadostasun hori apalagoa da.

### Zure seme-alabak aukerarik izan du kirola zuk nahi zenukeen hizkuntzetan egiteko?

